



Arartekoaren 2013ko irailaren 19ko ebazpena. Horren bidez bere jarduerari amaiera ematen zaio, GIBLZen (Genero Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzaren) desagertzearen ondoren genero-indarkeriaren biktimei diren emakumeen arreta- eta laguntza-egoera salatzen duen kexa bati dagokionez.

Aurrekariak

1. Genero-indarkeriaren biktimei diren emakumeen Haize Berriak elkarteko ordezkariak kexa bat aurkeztu zuten erakunde honetan, 2013ko abenduan, Euskadiko gobernua aldatzean, Genero Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza ezabatu zelako. Kexaren sustatzaileak arduratuta agertu ziren zuzendaritza horrek ematen zituen laguntza-zerbitzu batzuk desagertu egin zitezkeelako, eta, horrek, beren ustez, genero-indarkeriaren biktimei diren emakumeen laguntzan egondako hobekuntzak eta aurrerapenak kaltetuko lituzkeelako.

Zehazki, beren ustez lehen Genero Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak bermatzen zituen eta egun zalantzan egon litezkeen prestazio eta hobekuntza jakin batzuei buruz ari ziren. Horren harira, GIBLZek arreta-leihatila bakar gisa zuen funtzioa adierazi zuten, besteak beste. Beraien iritziz, horri esker emakumeek ez zuten zertan Gobernuko erakunde desberdinetara jo, genero-indarkeriaren biktimei-izaerarekin lotutako tramiteak egiteko.

Izan ere, elkarte honen aburuz, leihatila bakarraren sistema honi esker lekualdaketa saihestea eta tramiteak sinpletzea lortu zuen aurreko egitura administratiboak, eta, hala, arindu egin zen genero-indarkeriaren biktimei diren emakumeek bizi duten egoera penagarriari gehitzen zaio pisu burokratikoaren zati handi bat. Azaldu dutenez, gainera, Ertzaintzaren eskutik jaso duten tratua eta babesa nabarmen hobetu ziren GIBLZek egindako koordinazioari esker, bai babes-neurrien arintasun eta egokitasunari dagokienez, bai agenteekiko komunikazioaren erraztasunari dagokionez. Halaber, kexagileen esanetan GIBLZek genero-indarkeriaren biktimei diren emakumeen erreferentzia-talde baten sorrera bultzatu zuen eta horrek emakume partaideen jabetasun ekarri zuen. Izan ere, elkar ezagutu ahal izan zuten, beren esperientziak trukatu zituzten, elkarri babesa eman zioten eta emakumeen aurkako indarkeriaren gaitz izugarriaren gaineko ezagutza eta sentsibilizazioa hedatzeko foro





desberdinetan mintzatu ahal izan ziren. Horren harira, esperientzia bati esker emakume partaideek tratu txarrean zehar antzeman zituzten eskari eta gabeziei buruzko agiri bat argitaratu zuen GIBLZek. Halaber, genero-indarkeriaren biktimen testigantza zuzena eman zen EAEko ikastetxe publiko eta kontzertatu batzuetan, GIBLZek sustatuta eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak dinamizatuta.

Elkarteak, beraz, Arartekoaren esku-hartzea eskatu du, Emakunderi jakinarazteko lehen GIBLZek ematen zituen arreta-kotak, prestazioetako kalitate-maila eta ekimenak mantendu egin behar direla, ezinbestekoa iruditzen zaielako genero-indarkeria prebenitzearen alde lan egitea eta erakunde arteko ezinbesteko koordinazio-lanarekin aurrera jarraitzea.

2. Arartekoak gai horiei buruzko informazioa eskatu dio Emakunderi, baita erakunde horrek aipatu zerbitzu eta ekimenak mantentzen direla bermatzeko daukan plan eta ekimenei buruz, edo, hala badagokio, lehen GIBLZek ematen zituen arreta- eta laguntza-zerbitzuen kudeaketa gauzatzeko moduari buruz ere.
3. Ezarritako epearen barruan, Emakundek informazio hori bidali zion Arartekoari. Azalpen luze bat eman zen beren iritzipean jarritako gaien egoerari buruz. Horrez gain, organismo horrek genero-indarkeriaren biktima diren emakumeen arretan administrazio-koordinazioa bermatzeko daukan planak deskribatu ziren. Idazki horretan, hasteko, kexa sustatu duen elkarteak jorratutako gai ei erantzun zuzena emateko prestutasun osoa erakutsi zuten, eta, era berean, elkarte horrekin bilera bat antolatzeko prest agertu ziren, egokitzat jotzen dituzten alderdiak argitu ahal izateko. Ondoren, Arartekoaren informazio-eskaeran aipatu zen gai bakoitzaren gainean duten iritzia argitu zuten eta honakoa adierazi zuten:
 - Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak GIBLZen egitekoak eta langileak hartuko ditu beregain Eusko Jaurlaritzako Lehendakaritzako idazkari nagusiaren 2013ko urtarrilaren 31ko ebazpenaz geroztik. Ebazpen horrek Emakundeko zuzendaria izendatzen du GIBLZeko titularrari esleitutako eskumen eta egitekoak erabiltzeko organo arduradun. Adierazi dutenez, gaur egun arte une oro mantendu da GIBLZeko langile berdinek ematen zituzten arreta- eta laguntza-zerbitzuen prestazioa, egitekoen esleipena aldatu den arren, zuzendariaren eta aholkulariaren kasuan salbu, beren kargua utzi baitzuten.



- Esan dute, era berean, Emakunderi egitekoak eta pertsonak esleitu zitzaizkionetik, erakundeak **GIBLZek zituen egitekoak, baliabideak eta zerbitzuak aztertze lan-prozesu bat** hasi duela eta, egiaztatu duenez, ia guztiak ematen ziren GIBLZ sortu aurretik, nahiz eta modu desberdinean edo erakunde desberdinen eskutik. Esandakoaren arabera, Emakundek zerbitzu horiek lehen nola ematen ziren ere aztertu du, euskal erakundeetan emakumeen aurkako indarkeriaren gaineko eskumenak banatzen dituen araudia kontuan hartuta. Azterketa hori ikusita, eta etxeko tratu txarrak eta sexu-indarkeria jasan duten emakumeen arreta hobetzeko 2001ean eta 2009an (hurrenez hurren) sinatu ziren erakunde arteko bi hitzarmenen koordinazioan jasotako esperientzia aintzat hartuta, Emakundek **zerbitzuok Eusko Jaurlaritzaren jardueran berrintegrazteko proposamena** egin du, urteotan garatu den lana mantendu eta indartu dadin. Jaurlaritzako sailek eta indarkeriaren biktima diren emakumeen arretan inplikaturako gainerako erakundeek proposamen hori egiaztatu dute. Hori horrela, gaiarekin zerikusia duten administrazio eta zerbitzuekin egindako egiaztapen-prozesu honen arabera antolatu dira, zehazki, egitekoak eta zerbitzuak.

- Kexan adierazi diren gai zehatzei dagokienez, Emakundek dio, egiaztapen-prozesu horri dagokionez, lan-proposamenak honako ildo edo orientazioak jarraitzen dituela:

- **Arreta-leihatila bakarra:** Emakundek gogorarazi duenez, kontzeptu honek nahasdurak sor ditzake bere esanahiaren harira. Izan ere, inoiz ez da halakorik egon, baldin eta indarkeriaren biktima diren emakumeei arreta emateko eta baliabide eta laguntza guztiak kudeatzeko toki bakar fisikoa leihatila bakarra dela uste bada. Gobernu barruan ere ez dute halakorik ikusten. Izan ere, indarkeriaren biktima izan diren emakumeek "sarbide" desberdinetatik eskuratzen dituzte beren zerbitzu eta laguntzak (lehen mailako arreta-zerbitzuak, 24 orduko telefono-arretako zerbitzuak, epaitegietan biktimari laguntzeko zerbitzua, Ertzaintza, GIBLZ, eta abar). Azaldu dutenez, leihatila bakar hori benetan existitu izan balitz, GIBLZek genero-indarkeriaren biktima izan diren emakume guztiei eman beharko lieke arreta eta hori ez da inondik inora gertatu. EAEko lurralde bakar batean kokatzea (egoitza Bilbon duela) horren lekuko da. Hori guztia dela eta, Emakunderen ustez egokiagoa da Eusko Jaurlaritzak dauzkan laguntza





eta baliabideen kudeaketa integratuaz hitz egitea, eta ez leihatila bakarraz. Emakunderen proposamena, ukitutako erakunde gehienen babesarekin, administrazio nagusiko baliabide eta zerbitzuen kudeaketa integratu horretan aurrera egitea da, emakumeei orokorrean aurrez aurreko arreta eman gabe. Aurrez aurreko arreta hori prestakuntza egokia duten profesionalak emango dute emakumeengatik hurbilen dauden inguruetan, hau da, tokiko eta aldundietako administrazioetan, horiek baitira, gainera, legez horretarako eskumenak dituztenak. Adierazi digutenez, Jaurlaritzako zerbitzu bakar batek eman eta erraztuko dizkie gizarte-langileei Eusko Jaurlaritzako sail guztiekiko kudeaketak. Jaurlaritzaren zerbitzu hori gizarte-zerbitzuen gaineko eskumena duen sailean kokatuko da.

- **Komunikazio erraza Ertzaintzarekin:** Beren esanetan, Emakundek komunikazio erreza eta harreman estua eduki du eta edukiko du Ertzaintzarekin, kontuan hartuta, gainera, talde horretako ordezkariak daudela Erakunde arteko Talde Teknikoan eta Emakundeko zuzendaria buru duen Erakunde arteko II. Hitzarmenaren Jarraipen Batzordean, GIBLZ sortu aurretik ere gertatzen zen bezala. Ondorioz, komunikazio erraz hori hedatuko da hitzarmenean sartzen diren erakunde guztietara eta ez soilik Emakundera.
- **Emakumeei protagonismoa eta jabeakuntza emateko jarduerak:** Emakumeen jabeakuntza Jaurlaritzaren berdintasun-planen ardatz estrategikoetako bat dela gogorarazten dute, eta, hortaz, emakumeen jabeakuntza babestu eta eustea Emakundek gauzatzen dituen jarduera guztien helburuetako bat da, bai emakumeei zuzendutako jardueretan, bai elkarten bidez gauzatutakoetan. Hori horrela, Emakundek azpimarratu duenez kexa hau sustatu duen emakume-elkartea jasotzeko prest dago, helburu horretarako dauzkan lankidetzak eta partaidetzak moduak azaltze aldera.
- Gure informazio-eskaerari emandako erantzunean Emakundek jakinarazi digu bere egituraren barruan berariazko koordinazio-zerbitzu bat sortzeko asmoa duela, indarkeriaren biktima diren emakumeen arreta hobetze aldera. Helburua Emakundek gai honetan garatzen duen lana indartzea izango da.





Gogoetak

1. Azaldutako gertaerak aztertuta, kontuan hartu behar da, hasteko, Eusko Jaurlaritzako sail eta unitate administratiboak antolatzeko modua gobernu orok duen aukera politikoaren muinean sartzen dela, gobernu baten osaera ezartzeari dagokionez. Hori bai, antolaketa horrek bete egin beharko ditu konstituzio eta estatutuaren eskumen-esparrua, dagokion administrazio-antolamenduaren gaineko legedia (kasu honetan, zehazki, Eusko Legebiltzarraren 7/1981 Legea, Jaurlaritzari buruzkoa) eta, noski, berrantolatu nahi den baliabide edo zerbitzu bakoitzak ukitzen duen gaiari dagokion legedia. Ondorioz, ezin da aldeztu aurretik eskatu egitura administratibo jakin bat mantentzeko, Eusko Jaurlaritzako aurreko Herrizaingo Sailean Genero Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zerbitzua izan zen bezala; horren ordez, gobernu bakoitzak eskumenez esleituta dauzkan egiteko eta zerbitzuen barne-antolamendu administratiboa egituratu eta berrantolatzeko orduan har ditzakeen erabakiak errespetatu egin beharko dira, betiere, adierazi dugun bezala, berrantolaketa horrek ukitzen duen legezko esparru material eta antolatzailea behar bezala errespetatuta. Premisa hori azalduta, erakunde honek argitu behar du ea aurreko GIBLZen desagerpenak nolabait arriskuan jartzen duen Eusko Jaurlaritzak eman behar dituen zerbitzu edo baliabideen mantentzen diren.
2. Ezinezkoa iruditzen zaigu egitura administratiboen erreformak genero-indarkeriaren biktimei laguntzeko prestazioan duen eragina baloratzea, egungo Eusko Jaurlaritzak Emakunderen bidez sustatu duen berrantolaketa burutu baino lehen. Hori horrela, gure ustez prozesu hori behar bezala burutzea komeni da, eta, gainera, genero-indarkeriaren biktimei diren emakumeen arreta eta zerbitzuen prestazioaren antolaketa-eredu berria gutxieneko epe batez egon beharko da martxan, dauzkan ondorioak behar bezala ebaluatzeko eta horren arabera egiaztatzeko berrantolaketa horrek genero-indarkeriaren biktimei arretan sortu ahal izan dituen ondorio positibo edo negatiboak.
3. Edonola ere, kontuan hartu behar da genero-indarkeriaren biktimei arretako arreta osoak legezko inplikazioa dakarrela gure erakunde-sarean, ez soilik Eusko Jaurlaritzaren eskumenei dagokienez, baizik eta administrazio-erakunde desberdinen (tokikoak eta aldundikoak) eskumenei dagokienez, baldin eta gai honetan egitekoak badituzte, egiteko horiek ezagunak izan beharko direlarik. Hori dela eta, Emakunde erakunde inplikatu guztien iritzipean jarri nahi du emakume hauei arreta emateko antolaketa-formula berria eta ekimen horrek



ezin egokiagoa dirudi. Ildo horretatik, erakunde arteko II. hitzarmena sinatu duten erakundeek egiaztapen-prozesu horretan parte hartzea egokia da. Erakunde honek jakin duenez, II. Hitzarmenaren Erakunde arteko Talde Teknikoak azertu ondoren, Erakunde arteko II. Hitzarmen horren Jarraipen Batzordeak onartu egin du Emakunderen proposamena, 2013ko ekainaren 27an egindako bileran. Bertan, hitzarmen hori sinatu duten eta gai honetan eskumena duten erakunde guztiek parte hartu dute, Arartekoarekin batera. Horrenbestez, hartutako formulak erakunde inplikatu guztien babesa daukala ondorioztatu genezake, eta horrek indar ukaezina ematen dion proposamen honi, berau era koordinatuan eta eraginkortasun osoz betetzeko beharrezko adostasun instituzionala izanik.

4. Azkenik, kexa hau sustatu duen elkartearen eskaerari dagokionez, GIBLZek genero-indarkeriaren biktima diren emakumeen jabekuntzarako sustatu dituen jardueri eusteari dagokionez, zera egiaztatzen dugu: egiteko hori bete-betean sartuta dago Emakundek legez esleituta daukan helburu instituzionalean, eta erakunde honek, ondorioz, jarduera horiekin jarraitu ahal eta behar duela. Horretarako, organismo honi dei egiten diogu kexa sustatu duen elkartearen gaineko informazioa jasotzeko, aurreko GIBLZek bultzatutako ekimenak denboran zehar mantentzeko asmoz, elkarte horrek positiboki baloratzen baititu, emakume askoren jabekuntza lortu duelako.

Ondorioak

1. Arartekoari egokia iruditzen zaio Emakundek, Erakunde arteko II. Hitzarmenaren Batzordeko burua den aldetik, aurreko GIBLZen zereginak integratzeko antolaketa-formula berriaren eragina zaintzea, Euskadiko genero-indarkeriaren biktima diren emakumeei arreta emateko asmoz, batez ere -baina ez soilik- lehen GIBLZek eskaintzen zituen laguntza eta zerbitzuen prestazioari dagokionez. Horretarako, Erakunde arteko Talde Teknikoak gauzatzen dituen lanen esparruan genero-indarkeriaren biktima diren emakumeen partaidetzarako bide bat ezartzea komenigarria iruditzen zaigu, batez ere emakume biktimen elkarte eta taldeen bidez, horiek gai honetan duten iritzia eta ustea kontuan har daitezkeelako. Edonola ere, Emakunderen Zuzendaritzak kexa honen sustatzaileari dei egin ahalko dio, formula honen gainean duen balorazioa egiaztatzeko.





2. Era berean, komenigarria iruditzen zaigu Emakundek kexa sustatu duen elkartearen informazioa jasotzea, aurreko GIBLZek bultzatu zituen ekimenak denboran zehar mantendu edo/eta handitu ahal izateko beharrezko neurrien ezarpen posibleari buruz hausnartzeko, ekimen horiek elkartearen balorazio positiboa jaso baitute genero-indarkeriaren biktima diren emakumeen jabekuntza lortu dutelako.

